

BALOREZKO

PROPOSAMENA



Kimetz Toledo
Iker Mitxelena
Zihara Etxeberria
Eneritz Aduriz

Kimetz Toledo, Iker Mitxelena, Zihara Etxeberria eta Eneritz Aduriz gara eta Aiako taldea osatzen dugu. Gure helburua merkatuari aterki estilo berri bat eskaintzea da. Nahiz eta jada merkatuan hainbat aterki egon, gure aterkiek ondorengo berezitasunak dituzte; Silikonazko heldulekuak eta momentuan lehortzeko sistema. Honekin aterkiak momentuan lehortzea lortuko genuke eta nahiz eta euriarekin busti gurekin edozein tokitara eraman ahalko genituzke. Aterki estilo berri hau arrazoi desberdinen ondorioz aukeratu dugu: Batetik, silikonazko heldulekua ez da hoztuko tenperatura baxuetan eta eskuak bero edukitzeko aukera emango dio aterkia daramanari, gainera ez da oso material hauskorra; bestetik, lehortze sistema berriak erabiltzaileen erosotasuna bermatuko du.

Gure produktua erosiz gero, bezeroek ez dute arduratuta ibili beharko ea aterkia lapurtu dioten bustia zegoelako sarreran utzi dutelako. Horrez gain, aterkia momentuan lehorra egotea ere abantaila bat da adibidez, kotxera sartzeko garaian edo beste hainbat tokietara joaterakoan.

Horrez gain, gure produktua ezberdina den beste hainbat arrazoi ere badaude, ondorengo hauek dira:

Berritasuna, oraindik ez dira gure inguruan momentuan lehortzen diren aterkirik ikusi.

Horrez gain, aterkiak **pertsonalizatzeko aukera** izango dute eta bestalde, eskainiko diren modeloak marrazki pertsonal berriak izango dituzte.

Bestalde, **erosotasun** handiko produktua izango litzake, kontsumitzaileak ez bailuke aterkia eskuz lehortu beharko, ez eta nonbait aterkia lehortzen utzi beharko. Jendea ez litzateke edozein lekura aterkiarekin sartu baino lehen kanpoan gelditu beharko aterkiak tantarik bota ez dezan ziurtatzeko.

Balio kualitatiboa kontuan harturik, diseinua berritzailea eta aldakorra izango da, bakoitzak nahi duen modura pertsonalizatuta (honek aterkien lapurreta zailduko luke).

Balio kuantitatiboari dagokionez, prezioa, normala den bezala, aterki arruntenak baino handiagoa izango da. Batetik, teknologia berritzaile bat gehitzen ari garelako eta bestetik aterkia pertsonalizatu daitekeelako. Baina, ez dugu gehiegi garestitu nahi gure produktua, pertsona ororentzat eskuragarria izan dadila nahi dugu.

Eskuragarritasuna oso garrantzitsua iruditzen zaigu gure proiektuan. Aterki arrunt bat bezain eskuragarria izatea nahi dugu, supermerkatuetan, teknologia dendetan, "bazarretan",... salduz.

